

2012 eta 2014 urteen artean berean mantendu da EAEko etxegabeko pertsonen zenbaketa

- Bizitegi-bazterketa larria pairatzen duten pertsonen zenbaketa globalki berean mantendu arren, hazten ari da Donostian kalean lo egiten duten pertsonen zenbaketa, eta gutxitu egin da egoera hori bizi dutenen zenbaketa Gasteiz eta Bilbon.
- Guztira, 1.500 pertsona baino gehiagok erabiltzen dituzte Euskadiko bizitegi-bazterketa larriako prest dauden baliabideak. Horiei gehitu behar zaizkie kalean edo beste leku batzuetan aurkitu diren beste 323 pertsona (autoak, gune publikoak, etab.).
- Etxegabeen zenbaketan partaide izan dira, hiru hiriburuez gain, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko beste zazpi udalerri. Zenbaketan partaide diren udalerri horiek guztiek EAEko biztanleriaren %55 osatzen dute.
- Zenbaketan partaide izan dira 780 boluntario, eta lankidetzan burutu dute Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak; hiru Foru Aldundiek; Barakaldo, Bilbo, Donostia, Getxo, Irun, Audio, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko Udalek; eta Euskal Udalen Elkar-teak (EUDEL).

2012an Bilbo, Donostia eta Gasteizko Udalek –hiru Foru Aldundiekin bat eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren lankidetzan– burutu zuten berauen udalerri propietan bizitegi-bazterketa larria pairatzen zuten pertsonen lehenengo zenbaketa, aurretik Bilboko Udalak eta Kale Gorrian Lan Taldeak garaturiko ekimenei jarraipena emanaz (horren partaide dira, Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaz gain, zenbait gizarte-erakunde). 2014ko urrian berriz burutu zen etxegabeen zenbaketa bateratuaren esperientzia hori, eta ekimen horri heldu zioten ondorengo zazpi euskal udalerriek: Santurtzi, Sestao, Irun, Portugalete, Audio, Getxo eta Barakaldo. Honela, zenbaketa burutu zen biztanle gehien dituzten hamar euskal udalerrietan, eta bertan bizi da gutxi gorabehera EAEko biztanleriaren %53.

Ondorengo helburu bikoitza du xede zenbaketa horrek: batetik, kuantifikatu nahi da bizitegi-bazterketa larria pairatzen duen pertsonen zenbaketa, horren neurri gisara gau zehatz bat hartuz (2014ko urriaren 29a); bestetik, ezagutu eta aztertu nahi da pertsona horien egoera eta ezaugarriak ondorengo arlo hauetan: egoera administratiboa, hezkuntza-maila, jarduera eta diru-sarrerak, gizarte- eta familia-harremanak, osasun-egoera, bizitegiaren ibilbidea, droga-kontsumoa, eta zerbitzu eta prestazio sozialen erabilera, eskaria eta balorazioa egitea. Azterlan honetako esparruan, kontuan hartzen dira bizitegi-bazterketa larria pairatzen duten ondorengo bi kolektibo desberdin hauek:

- Gau horretan zenbaketa egin zen hamar udalerrietan (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Audio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao) kalean lo egin zuten pertsonak.
- Gaur hiru lurraldeetako gizarte zerbitzu eta zentroetan igaro zuten pertsonak (bizitegi-bazterketa larria pairatzen duten pertsonen laguntza zerbitzuak).

Emaitzen aurrepenaren arabera, bizitegi-bazterketa larria oairatzen duten 1.836 pertsona identifikatu dira zenbaketa horretan, eta horietatik 323 aurkitu zituzten kalean, eta 1.513 pertsonak ostatu hartu zuten gizarte-zerbitzuetako baliabideetan (aterpe, egoitza, etxebizitzak, etab.). 1.836 pertsona horietatik 297 (%16) identifikatu zituzten Araban, 904 Bizkaian (%49) eta 635 Gipuzkoan (%34).

1.taula. EAEn bizitegi bazterketa larrian dagoen pertsona kopurua.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Kalean aurkitutako pertsonak	20	175	128	323
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonak	277	729	507	1.513
Guztira	297	904	635	1.836

Oharra: kalean aurkitutako pertsonen dagokionez, taula honetako datuek gaueko zenbaketa egin zen 10 udalerrietako emaitzak bakarrik biltzen dituzte (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao).

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

Ondoko taulak bizitegi bazterketako egoeren intzidentzia adierazten du, lurraldeen arabera. Kalean aurkitutako pertsonen dagokionez, emaitza globalek adierazten dutenez, intzidentzia tasa 0,279 pertsona 1.000 biztanleko da. Gipuzkoako tasak (0,518) Donostia eta Irungo udalerriak barne hartzen ditu, eta Bizkaia (0,270) –Bilbo, Barakaldo, Getxo, Portugalete, Santurtzi eta Sestao hartzen ditu– eta batez ere Arabakoa (0,077) –Gasteiz eta Laudiokoa hartzen ditu– baino handiagoa da.

2.taula. Bizitegi bazterketako egoera larrien intzidentzia eta banaketa EAEn.
2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Kalean aurkitutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko ¹	0,077	0,270	0,518	0,279
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko ²	0,860	0,633	0,709	0,691
Tasa guztira 1.000 biztanleko ²	0,923	0,785	0,888	0,839
Kalean aurkitutako ehunekoa guztizkoari dagokionez	7,2	24,0	25,2	21,3
Aterpetxeetan zenbatutako pertsonen ehunekoa guztizkoari dagokionez	93,3	80,6	79,8	82,4

1. Datuak 10 udalerrietan aurkitutako pertsonen dagokionez (Barakaldo, Bilbao, Donostia, Gasteiz, Getxo, Irun, Laudio, Portugalete, Santurtzi eta Sestao), tasa hau biztanleria horren arabera kalkulatu da. 2. Tasa hau lurralde bakoitzean bizi den pertsonen guztizkoari dagokionez kalkulatu da.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2014ko urtarilaren 1eko datuak

Alde txikiak ikus daitezke hiru lurraldeen artean aterpetxeetan zenbatutako pertsonen intzidentzia tasari dagokionez: tasa altuena Araban dago (0,86 pertsona 1.000 biztanleko); baxuena, aldiz, Bizkaian (0,633). Gipuzkoa bien artean kokatzen da: 0,709 pertsona 1.000 biztanleko.

323 pertsona kalean lo

Hamar udalerrietan kalez kale zenbaketan ibili ziren boluntario-taldeek 323 pertsona aurkitu zituzten guztira. Pertsona horien artean, hiru laurden (247 pertsona, % 76,5) hiru hiriburuetan igaro zuten gaua: Bilbon, 141 pertsona (% 43,7); Donostian, 89 (% 27,6); Gasteizen, 17 (% 5,3). Gainerako udalerrietan 76 pertsona zenbatu ziren: 39, Irunen; 20, Getxon; 9, Barakaldon; 3, Laudion eta Santurtzin; 2, Portugaleten; Sestaon ez zen inor aurkitu kalean.


3.taula. Kalez kale eginiko zenbaketaren emaitzak udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Gizonak	Emakumeak	Zehaztu gabeak	Guztira	
	Kopurua	Kopurua	Kopurua	Kopurua	% bertikala
Barakaldo	7	2	0	9	2,8%
Bilbao	117	17	7	141	43,7%
Donostia	63	8	18	89	27,6%
Gasteiz	14	3	0	17	5,3%
Getxo	17	2	1	20	6,2%
Irun	30	7	2	39	12,1%
Laudio	2	1	0	3	0,9%
Portugalete	2	0	0	2	0,6%
Santurtzi	3	0	0	3	0,9%
Sestao	0	0	0	0	0,0%
Guztira	255	40	28	323	100,0%

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

Kontuan harturik udalerri bakoitzeko 2014ko biztanleria-, Irun eta Donostia dira kalean aurkitutako pertsonen tasa handienak dituzten udalerriak, eta atzetik datoz Bilbo, Getxo, Laudio, Barakaldo, Gasteiz, Santurtzi, Portugalete eta, azkenik, Sestao (ez zen inor aurkitu kalean).

1.grafikoa. Kalean aurkitutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko, udalerrien arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua



Iturriak: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. 2014ko urtarilaren 1eko datuak

Ikuspegi ebolutiboa kontuan harturik, desberdina da hiru hiriburuetakoko egoera, baina egonkortasuna aipatu daiteke neurri global batean. Bilboko kasuan, orain bi urteko zenbaketaren antzeko emaitzak jaso arren (141 pertsona), Donostian nabarmentzen da bereziki altua den hazkuntza bat, %35 2014ko zenbaketa 2012koaz alderatuz gero, eta ia %100 aurreko hiru urteen aldean. Aitzitik, Gasteizeko zenbaketan %41 gutxitu da (29 izatetik 17 pertsonetara) 2012 eta 2014. urteen artean. Nolanahi ere,

garrantzitsua da kontuan hartzea, soilik, zenbatzen direla detektatu eta identifikatutako pertsonak, eta altuagoa izan daitekeela aipaturiko gau horretan kalean lo egin zuten pertsonen zenbaketa.

4. taula. Kalean aurkitutako pertsona kopuruaren bilakaera udalerrien arabera. 2010/2011-2012-2014

	2010/2011*	2012	2014
Bilbao	205	148	141
Donostia	45	66	89
Gasteiz	--	29	17
Guztira	-	243	247

*2010eko ekainaren 15etik 16rako gauean zenbaketa bat egin zen Bilbon. Hurrengo urtean, Donostian egin zen, 2011ko martxoaren 23tik 24rako gauean.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika. Urte bakoitzeko urtarilaren 1ean hartutako datuak.

Gizarte zerbitzuetako zentruetan hartutako pertsonak

Udalek, Foru Aldundiek eta etxegabekoei aterpe ematen dieten erakundeek emandako datuetan ikus daitekeenez, biztanleriaren arabera plaza kopuru handiena Araban dago, Gipuzkoa eta Bizkaia, seguido de Gipuzkoa y de Bizkaia.

5. taula. Aterpe baliabideetara jo zuten pertsonen zenbaketaren emaitzak lurraldeen arabera. 2014ko urriaren 29tik 30erako gaua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Aterpea ematen duen zentro kopurua	48	129	76	253
Plaza kopurua guztira	449	943	693	2.085
Aterpe hartutako pertsona kopurua	277	729	507	1.513
Plaza kopuru guztizkoa 1.000 biztanleko	1,39	0,82	0,97	0,95

*Bizkaia eta Gipuzkoako datuan behin behinekoak dira zentru eta plazei dagokienez, baita datu hauetan erabiltzen diren adierazleei dagokienez ere.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014; INE. Errolda jarraituaren Estatistika. 2014ko urtarilaren 1eko datuak.

Orokorrean hartuta, gau horretan aterpe baliabideetan lo egin zuten pertsonen %18ak lo egin zuen hiru hiriburuetakoko gaueko harrera duten udal zentroetan. Bilbon, Elejebarrri Udal Aterpetxeak (66 pertsona), Gaueko Aterpetxeak (36 pertsona) eta Eskakizun Gaxuko Udal Aterpetxeak (28 pertsona), 130 pertsona onartu zuten, Bizkaian gau horretan ostatzuz zeudenetik %17,8a. Donostian, udaleko Abegi Etxea eta atxikitako lokalak (43 pertsona) eta Gaueko Aterpeak (30 pertsona) aterpe eman zieten 73 pertsonari, hori da, Gipuzkoa gau horretan ostatzuz zeudenetik %14,4a. Azkenez, Gasteizen, dauden udal hiru aterpeak –Abegi Etxea (38 pertsona), Gaueko Aterpea (25 pertsona) eta “Casa Abierta” Udal Abegia (7 pertsona)–70 pertsona hartu zuten, Araban gau horretan ostatzuz zeudela zenbatu zirenetik % 25,3a.

EAEko hiru hiriburuetakoko udal aterpetxeek hartu zituzten pertsona gehien. Zenbaketa egin zen gauean, Bilboko Elejabarriko Udal Aterpetxeak 66 pertsona artatu zituen; aldiz, Donostia eta Gasteizko Gizarte Abegiko Udal Zentroek (GAUZ) 40 eta 38 pertsona aterpetu zituzten, hurrenez hurren. Guztira, hiru zentroek 144 pertsona hartu zituzten; hots, gauean artatutako pertsona guztien % 9,5.

Jasotako datuen arabera, aterpetxe gehienak hiriburuetan egoten jarraitzen dute, eta, beraz, hiru udalerri horietako baliabideetan aterpetutakoen proportzioa handia da. Bildutako informazioaren arabera, ikerlanean aztertutako zentro guztien % 81 hiriburuetan daude (253tik 191); gainerako zentroak, beste 20 udalerritan. Azkenik, datuen bilakaerari dagokionez, gonkortasuna da nabari, Gipuzkoan izan ezik, non 2012an baino hartatutako pertsona kopuru handiagoa zenbatu den.

6.taula. Aterpetxeetara jotzen duen pertsona kopuruaren bilakaera lurraldeen arabera. 2010/2011-2012-2014

	2010/2011*	2012	2014
Araba	--	279	277
Bizkaia	649	738	729
Gipuzkoa	419	444	507
Guztira	--	1.461	1.513

*2010eko ekainaren 15etik 16rako gauean zenbaketa egin zen Bizkaian. Hurrengo urtean, Gipuzkoan egin zen, 2011ko martxoaren 23tik 24erako gauean.

Iturria: EAEn bizitegi bazterketa larrian dauden pertsonen inguruko azterlana 2014.

Azkenik, zentroetan aterpetutako pertsonen oinarrizko datu soziodemografikoei dagokienez, pertsonen % 7,3 (111) nagusiez lagundutako adingabeak ziren. Zenbatutako 1.513 pertsonetatik soilik % 23,9 ziren emakumeak.